

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

BALIABIDE FISIKOAK

Pastilla kaxa sortzeko [lokal](#) bat alokatu dugu. Aukeratu dugun lokala 50m karratukoa da eta hilabetero 600€ kostatuko zaigu.



Gure lokala tailer txiki bat bezalakoa izango da. Produktuaren osagai guztiak armairu batean egongo dira gordetak. Mahai handi bat izango dugu, eta hor Albak pastilla kaxen muntaia egingo du. Beste aldetik, mahai txiki bat izango dugu, non Nahiak, enpresaren finantzaketa kudeatuko du.

BALIABIDE INTELEKTUALAK

Alde batetik, pastilla kaxa **aplikazio** bat izango du, horretarako, Janirek izango da aplikazioa diseinatzeko eta garatzeko duena. Beste aldetik, Gure produktua **patentatzeko** asmoa dugu, gu baikara sortzaileak eta patente hori 1000€ gutxi gora behera kostatuko zaigu. Programazioan eta marketinean lizeeniziatutako talde bat gara.

GIZA BALIABIDEAK

Gure enpresarako ez dugu inor gehiago kontratatuko. Ekonomia arlorako Nahia Nuñez daukagu, Finantzak eta Kontabilitatea ikasi dituenak, bera arduratzen da enpresako fakturretaz, maileguetaz, diru-sarreretatik eta gastuetaz.

Pastilla kaxa programatzeko Janire Burguete dugu, Ingenieritza ikasi eta programazioan espezializatu zena. Bera arduratzen da aplikazioa programatzeaz eta bezeroekin harremanetan egoteaz, pastilleroarekin arazoak dituztenentzat, konponbideak eskaintzeko. Halaber, markaren sare sozialak kudeatzen ditu.

Pastilla kaxa muntatzeko Alba Ferreira dugu, Ingeniaritza ikasi zuena, baina informatikan lizenziatu zena. Berak arduratzen da Alibabatik- heltzen diren piezak eta pastilleroak muntatzeaz.

FINANTZA BALIABIDEAK

Hasieran, enpresa hasteko, inbertsio txikia egingo dugu. Horretarako, S.L bat sortuko dugu, hasieran 3000€ gutxienez jarri behar delako. Taldekide bakoitzak 1000€ jarriko ditu; eta horrela lortuko ditugu hasieran jarri behar ditugun 3000€-ak.

Hiruak autonomoak izango gara. Autonomo berria izateagatik 50€ ordaindu beharko ditu bakoitza lehenengo hilabetetan.

Lehenengo gastuei aurre egiteko mailegu bat eskatu beharko diogu bankuari. 7.000€-ko mailegu pertsonala izango da, %5-eko interesekin eta 5 urtetan amortizatuko dugu (60 hilabete). Ondorioz, hilabetero 94,36€ ordainduko ditugu.